

# Amikuze Iholdi Oztibarre


Ibilbide guziak gida honetan aurkituko dituzue ►►  
Donapaleuko Turismo Bulegoan eskuragarri randoñées



MAILA  
**3**

ERTAIN

## UHARTEHIRI (URBELTZ)



**D** Uhartehiriko elizaren aparkalekua



**Xakurrak onarturik**

**GPS (WGS84-UTM)**

30T-660750-4793649

**Ikusi beharrekoa**

Soiartzte kapera eta norabide mahaia



**3'50**



**10 km**



**230 m**

**Seinalatzea**

- 1 etik 2 ra
- 2 tik 5 era
- 5 etik D ra

### Soiartzte kapera

1894an eraikia, kapera horrek aterbe bat, aire zabaleko aldare bat eta edateko ur iturri bat eskaintzen ditu gaur egun. Kaperako ateburuan Ama Birjinari eskaini erregutze bat agertzen da: « Erauntsi gaixoetarik Begira gaitzazu Ama birgina otoiz egizu guretzat ». Mendekosteko igandean, bi prozesio abiatzen dira Uhartehiri eta Ostankoatik abiatzen dira, kantuen bidez lehian sartuz. Otoiztegiak Ama Birjinaren estatua ohi baten kopia aterbetzen du eta babesa eskatzen duen beilariari pausaleku bat eskaintzen dio, hamar mendeko ohitura zahar bati jarraituz.



LIBURU HORI PIRINIO ATLANTIKOETAKO TURISMO BULEGOEK BAIZIK EZ DUTE SALTZEN AHAL

MAILA  
**3**

ERTAIN

## UHARTEHIRI (URBELTZ)



Norabide mahaia

**D**one Jakue bideetan dagoen ibilbide hori Soiartzte otoiztegiako igoera batetik iragaten da. Bertan ibiltariak edo beilariak edaten ahal du, ikuspegiak eta Euskal Herriko zein Biarnoko gailurren izenak adierazten dituen norabide oroitarriz gozaten ahal da. Itzultzean, gomendatua da Duhalde ostatuan gelditzea edari fresko bat edateko gisan.

**D** 30T-660750-4793649 D302 errepidea hartu Pagolarantz. Bigarren zubia pasatu eta gero, ezkerrera biratu. Bidea segitu Otsobiteiaraino, etxeen artetik pasatu eta ezkerrera biratu, pista harriztatuan. Alde batean eta bestean dauden hurrengo bi bideak utzi.

**0'30** **1** 30T-661967-4794395 Bidegurutzean, ezkerreko errepidea hartu eta Larribar-reraino segitu 1,500 km-tan.

**1'00** **2** 30T-661221-4795239 Ezkerrera biratu pilotalekurantz, xuri eta gorri seinatua den GR65ean. Herriko etxearen aitzinean, ezkerrera biratu, D933 gainetik pasatzen den zubixka zeharkatu eta zuzen segitu errepide txikia hartuz. Ezkerrera hartu hurrengo etxeetaraino. Biduze errekarara iristerakoan, errota ohiaren ondoko zubia zeharkatu eta landarez estalia den ezkerreko bidean gora ibili Gibraltar-eko bidegurutzearaino. 60 metroko joan-etorria behar-

rezkoa da Gibraltar-eko hilarria ikustera joateko.

**1'40** **3** 30T-659328-4795899 Bidegurutzean D302 errepidea zeharkatu eta pareko errepidea hartu. Lehen bihurgunean, bitetik zuzen segitu gailurreraino.

**2'20** **4** 30T-658727-4794221 Soiartzte kapera, baso ertzean behera doan ezkerreko pista hartu.

**2'40** **5** 30T-658776-4793543 Bidean hil zen apez baten omenez eraikia izan den bigarren hilarrian jautsiera segitu 1,630 km-tan, GR65eko seinalatzea alde batera utziz. Bidegurutzean, eskuineko errepidea hartu elizara joateko.

**3'50**



Argibide gehiagorako :

**Nafarroa Behereko Turismo Bulegoa**

• 14 Charles de Gaulle plaza, 64210 Donapaleu – Tel. 05 59 65 71 78

[www.tourisme-saintpalais.com](http://www.tourisme-saintpalais.com)

## GUIDES RANDO 64

à pied, en vtt ou à cheval, découvrez le Béarn et le Pays basque !

## Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera guztien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

**Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira** eta ibilbide bakoitzaren fitxa praktikokoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segituen ditugu.

**Biziki errexa** 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka za-baletan zehar.

**Errexa** 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan, tarte zailago batzuekin.

**Ertaina** 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zaila batzu eta desnibela handia izaten ahal dira.

**Zaila** 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

**Ibilaldiaren iraupena** : zure informaziorako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.

## Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®		
Norabide ona				
Ezkerre itzuli				
Eskuinera itzuli				
Norabide txarra				

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pausatu dituen sormarkak dira

## Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecovaille®

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz zainduak izan dira. Gure xendrei buruzko zure iritzi eta oharrak interesatzen zaizkigu. Horiei esker, egoera onean mantentzen ahalko ditugu. Gonbidatzen zaitugu zure oharrak jakinaraztera Donapaleun kokatua den Nafarroa Behereko Turismo Bulegoarekin harremanetan sartuz. Tel. : 05 59 65 71 78

Bertan Ekozaintza fitxa bat eskuratzen ahalko duzu.



Xendren edo seinatlatzearen tokiko argazkia

## Aholku baliagarriak

Aroa 08 92 68 02 64

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori bizi arazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

### Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

### Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

### Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.

### Kasu !

Uso ehizaren sasoiaren (urritik azarora) eta larre erreketak egiten diren garaian (abendutik martxora)hobe da ibilbide batzuk ez hartzea. Argibideak turismo bulegoan.

## Ibilaldi labelak

### PR labela duten ibilbideak :

Label honen bidez, Frantziako Ibilaldiaren Federazioak hainbat oinezko ibilbide onartzen ditu kalitate irizpide batzuen arabera. Hautua, onarpenerako irizpide batzuen eta ingurumenari lotu irizpide tekniko zein turistikoaren arabera egiten da. (Argibide gehiago [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr) webgunean)



**Zaldizko ibilbideak** : Logotipo honek Departamenduko Zaldizko Turismo Batzordeak baldintza orri zorrotz baten arabera onartu duen ibilbide bat bermatzen du. (Argibide gehiago [www.cheval64.org](http://www.cheval64.org) webgunean)

### Lur Orotako Bizikletarako ibilbideen sailkatzea



: bide zabal eta erabilerraza, 300 m baino gutxiagoko desnibela

: xendra aski erabilerraza, 300 m baino gutxiagoko desnibela

: xendra teknikoa, 800 m baino gutxiagoko desnibela

: zailtasun handiko xendra, 300-800 metroko desnibela